


2146447 jarduera

1- Entzun aurretik

1.1 Bi hizpide



Ikasgelan entzungo duzun elkarrizketatik, bi une hauek hartu ditugu. Irakurri eta hipotesiak egin. Zertaz ari direla uste duzu?

Adibideari erreparatu:

Nire ustez, lehenengoan, Jon eta Jone Nikoren igeriketa klaseei buruz ari dira. Antza denez, zaila da erabakitzea haurrak zein ikastarotan hartu behar duen parte. Jone oso haserre antzematen da eta arrazoaia zera izan liteke: Jonek brometan hartu duela gaia eta horrek ez dio erabakia hartzen laguntzen.

1



JONE: Nikorekin bizi naiz. Zuk zer uste duzu, halako erabaki bat Oujaren bitartez hartu daitekeela?
 (...)
JON: bueno ez dakit erraza den ala ez, baina ez da lehendabiziko kasua, milioika bizi dira horrela. Zergatik izutzen zara beti gauza hauekin?
 (...)

Egoeraren kokapena egin eta idatzi zertaz ari diren Jon eta Jone zure ustez

2



JON: Ostia!
JONE: Zer gertatzen da, Jon?
JON: Ez duzu ikusi?
JONE: Baina, nora zoaz?
JON: Memento bat besterik ez da...
JONE: Jakin daiteke zer zen hori?
JON: Triku bat
JONE: eta zer egin duzu?
JON: Ba ikusi duzu, hartu eta ahalik eta urrutien eraman
 (...)

Egoeraren kokapena egin eta idatzi zertaz ari diren Jon eta Jone zure ustez

2146447 jarduera

1.2 Hipotesiak trukatu

Ikaskidearekin partekatuko dituzu ariketan egin dituzun hipotesiak. Antzekoak al dira? Ondoren, entzun elkarrizketa benetan zertaz ari diren jakiteko. Asmatu al duzue?

- _____
- _____

2- Entzun bitartean

2.1 Joneren iritziak

Entzundakoa kontuan hartuta, zein baieztapenekin iruditzen zaizu **ez dela ados egongo Jone?**

	Autoak harrapatuta hiltzen diren trikuak asko eta asko direla esateko "holokausto" hitza erabiltzea gehiegizkoa iruditzen zaio
	Niko dagoenez, bien arteko harremanean, poliki joan behar dutela iruditzen zaio Joneri
	Joneri iruditzen zaio maitasun kontuan inor minduta ez ateratzeko ezin dela egi osoa esan.
	Jonek pentsatzen du Jonen galdera azkarregi iritsi zaiola, berak ez baitu bere burua prest ikusten proposamenari baietz esateko.
	Errepidean kontu handiarekin ibili behar delakoan dago, eta, autoa animalia batengatik bat-batean geratzea oso arriskutsua iruditzen zaio.

2.2 Jon nola ageri da?

Aurreko ariketan Joneren jarrera aztertu ondoren, zer esan dezakezu Jonen izaerari buruz? Idatzi nola ageri den elkarrizketaren hainbat unetan. Aurreko ariketan Joneri buruz esandakoak adibide bezala erabili ditzakezu. Idatzi tartean egia ez den ezaugarriren bat eta ikaskidearekin trukatu egindakoa. Ea berak asmatzen duen zein den gezur hori.




2.3 Trikua

Elkarrizketan, Jonek beste hitz bat erabili du "triku"aren ordez. Erantzun galderari **Nola deitzen diote trikuari Eibarren?**

2146447 jarduera

3- Entzun ondoren

3.1 Maniobra arriskutsuak errepidean

    Joneri maniobra arriskutsua iruditu zaio Jonek egindakoa. Erreparatu irudiari eta eman elkarki iritzia:



Zer egingo zenuke?

Adibideak:


- *Oso animalia zalea naizenez, bolante-kolpea joko nuke oreina ez harrapatzeko*
- *Ba nik, neure burua onik ateratzeari emango nioke garrantzia , hortaz, aurrera jarraituko nuke oreina hiltzen den edo ez kontuan hartu gabe.*

- _____
- _____
- _____

Zein aholku emango zenioke gidariari? Aholkuak osatu, bertan azaltzen diren ekintza/egoera bakoizterako. Ikusi ereduak. Ondoren, irakasleak irakurriko ditu Consumer aldizkariko aholku osoak. Nor hurbildu da gehien aldizkariko aholkuetara?


- **Balazta ondo zapaldu**, ahal bada gurrupilak blokeatu gabe. Autoak ABS sistema badu, orduan balazta barruraino zapaldu. ABSrik ez badauka, berriz, oztopoa gertu daukazunean oina balaztatik pixka bat altxa eta maniobratu oztopoa saihesteko. Gorputzaren pisua oinen gainera eraman eta bolantea alde batera jiratu, gehienez buelta erdia. Maniobra egiten ari zaren denbora guztian, oztopoari begiratu beharreak, pentsatu zein norabide hartuko duzun. Behin oztopoa saihestuta, bolantea hasierako posizioa eraman mugimendu labur eta azkar batez, autoaren egonkortasuna berreskuratzeko.

- klaxona jo




2146447 jarduera


- Gaua bada, argiak piztu



- Animalia txikia bada eta abiadura handiarekin bazoaz,



- Animalia handia bada -basurde bat edo behi bat-,



Errepideko oztopoak saihesteko aholkuak:
[Consumer aldizkaria](#)

3.2 Maniobra arriskutsuak

   Komentatu irudiak ikaskidearekin. Baloratu arriskua eta eman aholkua istripua saihesteko.

